


cineclub
fas



zinekluba

ABR/MAY/JUN 2026 API/MAI/EKA

El mejor cine de autor en V.O.

J.B.an zinemarik onena

El hombre de Londres

Emergency Exit

Jone, batzuetan

Balearic

El mal

Banda sonora para un golpe de estado

As liñas descontinuas

La mujer murciélago

Popel / Cenizas

La misteriosa mirada del flamenco

Estrany riu

Häxan. La brujería a través de los tiempos


Estrany riu

Jaume Claret Muxart

HAZTE

SOCIO/A

La mejor oferta cinematográfica en Bilbao
Todas las sesiones en V.O.
Conferencias sobre cine
Coloquios con directores, actores, críticos...
Acceso a la biblioteca del cineclub
Invitación a eventos cinematográficos
De lunes a viernes precio de día del espectador en los
Multicines



Bilboko zinema eskaintarik onena
Emanaldi guztiak J.B.an
Zinemari buruzko hitzaldiak
Zuzendaria, aktore, kritikarekin... solasaldiak
Zineklubaren liburutegia erabiltzeko aukera
Zine ekitaldiatarako gonbidapenak
Multicines-etan astelehenetik ostiralera ikuslearen
eguneko prezioan

BAZKIDE

EGIN

PROGRAMA EGITARAGUA



ABRIL / APIRILA

7

EL HOMBRE DE LONDRES (2007)

14

EMERGENCY EXIT (2025)
+LOCAS DEL ÁTICO

21

JONE, BATZUETAN (2025)
+ULTRAMARINO

28

BALEARIC (2025)
+DICEN QUE TU PADRE

MAYO / MAIATZA

5

EL MAL (2025)

12

BANDA SONORA PARA UN
GOLPE DE ESTADO (2024)

19

AS LIÑAS DESCONTINUAS (2025)
+HARA IRISTEKO BIDEA

26

LA MUJER MURCIÉLAGO (1968)
+ESA MARAVILLOSA NIEBLA II



JUNIO / EKAINA

2

POPEL / CENIZAS (2025)
+NATURA FUGIT

9

LA MISTERIOSA MIRADA
DEL FLAMENCO (2025)

16

ESTRANY RIU (2025)

23

HÄXAN. LA BRUJERÍA A TRAVÉS
DE LOS TIEMPOS (1922)



TARIFAS / SALNEURRIAK

CARNET SOCIO/A KIDE TXARTELA

Normal/**normala** (abr-dic/**api-abe**) 56€

Estudiantes, desempleados y discapacitados
Ikasle, langabeziak eta desgaituak 44€

Entrada libre a todas las sesiones **Saio guztietarako sarrera librea**

BONO 10 SESIONES 10 SARRERA BONUA

Válido por dos cursos / años
bi ikasturte/urtetarako balio du

45€

PASES PARA NO SOCIOS EZ BAZKIDEEN PASEAK

venta en taquilla el día de la sesión
salmenta leihatilan saioaren egunean

Normal/**Normala** 5€

Estudiantes, desempleados y discapa. 3€

Ikasle, langabeziak eta desgaituak

Inst. Francés, Inst. Estudios del ocio 3€

Estudiantes escuelas de cine 2€

Zinema eskolako ikasleak

PRIMAVERA 2026 UDABERRIA

PRESENTACIÓN AURKEZPENA

‘Garai txarrak lirikarako’, abestu zuen Golpes Bajos 1983an, eta euria egin badu ere, ez bakarrik kultura (lirika, zinema edo antzerkia...) arriskuan dago, baizik eta gizarte osoa. Baina, gure esku dago filmak ikusi eta eztabaidatzeko zeregin honetan bultzatzen eta konprometitzen jarraitzea. Ulertzen dugu 7. Arte honek, pertsona hobeak eta gizatiarragoak izatea lagundu behar digula, hausnartzea, pentsatzea, laguntzen digu. Errealitate gordinarengana hurbiltzen gaituen fikzioa (benetan errealitatea izan gabe). ‘Zinemak beti du bilaketa zentzua’ [José Luis Guerin, 2025].

Beraz, murgiltzen gara (ez ahazteko, ezta ihes egiteko ere), zinemaren hizkuntzan, bere estilo desberdinetan, arte-kultura-zinemak gure buruak irekitzera gonbidatzen gaituen. Egile-zinema, arrisku-zinema, erdigunean baino gehiago bazterrean dagoen zinema. Béla Tarr-i (1955-2026) omenaldia, Lluís Miñarroekin bidaia berezi bat, Sara Fantovarekin talentu berriak deskubritzea eta Balearic-engazteria eta burgesia aztertzea. Eta ‘bidaiatuko’ dugu, Kongoko Errepublikara (Belgikako Kongo)... 1960an, Galiziara, Mexikora, Txekoslovakia nazira, Txilera, Danubio (ez oso urdinera) eta Erdi Aroko Europara. ‘Beti ibiltzen bidea eginez’ [Antonio Machado, 1912].

‘Malos tiempos para la lírica’ cantaban Golpes Bajos en 1983, y aunque ha llovido, no solo la cultura (lírica, cine o teatro....) está en riesgo, sino la sociedad. Pero, nos toca seguir empujando y empeñándonos en esta tarea de ver y debatir cine. Entendemos que este 7º Arte, debe ayudar a ser mejor personas y más humanos, nos ayuda a reflexionar, a pensar. Ficción, que nos acerca a la cruda realidad (sin serlo). ‘El cine siempre tiene un sentido de búsqueda’ [José Luis Guerin. 2025].

Nos sumergimos pues (no para olvidar, ni evadirnos), en el lenguaje cinematográfico, en sus diferentes estilos, arte-cultura-cine que nos invita a abrir nuestras mentes. Cine de autor/a, cine arriesgado, cine más en el margen que en el centro. Homenaje a Béla Tarr (1955-2026), un viaje especial con Lluís Miñarro, descubrir savia nueva de la mano de Sara Fantova, o analizar juventud y burguesía en Balearic.

Y ‘viajaremos’ a la República del Congo (Congo Belga) en 1960, a Galicia, a México, a aquella Checoslovaquia nazi, a Chile, al Danubio (no muy azul), o al Medioevo europeo. ‘Siempre haciendo camino al andar’ [Antonio Machado. 1912].

XIII. KORTeN! 2026

Festival de cortometrajes
Film laburren zinemaldia

**ZINE
BI**

Babeslea
Patrocinador

2026/01/27

KORTeN! (7) **Locas del ático**

Tamara García I. EH, 2024, 16' Dok

2025/02/17

KORTeN! (9) **Dicen que tu padre**

Aitor Abio. EH, 2025, 14' Fik

2025/03/10

KORTeN! (11) **Esa maravillosa niebla II**

Aitor Elorriaga T. EH, 2025, 23' Fik

2025/02/10

KORTeN! (8) **Ultramarino**

Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti.
EH, 2025, 18' Fik

2025/03/03

KORTeN! (10) **Hara iristeko bidea**

Nora Alberdi O. EH, 2025, 7'

2025/03/10

KORTeN! (12) **Natura fugit**


Jesus M. Lazkano. EH, 2025,
22' Ani

Gonbidatuak

Invitad@s




Lluís Miñarro



Sara Fantova



Anxos Fazáns



Viviana García-Besné



Edna Campos



Oier Plaza



Jaume Claret

El hombre de Londres

A londoni férfi

Un capitán de puerto francés llamado Maloin que vive en la miseria con su esposa y su hija. Una noche, presencia una pelea en el oscuro muelle junto a la terminal de trenes entre dos tipos sospechosos: uno, con una maleta, cae al agua y desaparece; el otro huye. Más tarde, Maloin sale a escondidas para recuperar la bolsa flotante, donde descubre que contiene un rescate real en dinero británico.

El dinero es británico. Maloin está atrapado. No puede gastarlo sin cambiarlo, y ésto es imposible sin llamar la atención.

Tarr ha tomado un thriller de Simenon bastante modesto y, prescindiendo totalmente de la emoción, da un salto al vacío y adopta un pulso, un ritmo, que no tiene que ver con el género thriller: música obsesiva, cámara lenta pero imparable, imagen que reconstruye los ambientes portuarios y el misterio interior del protagonista.

Maloin izeneko portu kapitain frantsesa, miserian bizi dena emaztearekin eta alabarekin. Gau batean, borroka bat ikusiko du kai ilunean, tren terminalaren ondoan: bi morroi susmagarri: bat, maletarekin, urera eroriko da, eta besteak ihes egingo du. Gero, Maloin, ezkutuka irtengo da uretan gelditu den maleta berreskuratzeko: barruan, britainiar dirutan ordaindutako erreskatea dagoela aurkitzen du.

Dirua britainiar dirua da. Maloin harrapaturik dago. Ezin du erabili aldatu gabe, eta aldatzea ezinezkoa da, susmorik piztu gabe.

Tarrek Simenonen thriler xume bat hartu du, eta kendu egin dio emozio guztia; hutsean egindako jauzia izan da, eta thrilerraren generoarekin ikustekorik ez duen jitea eta erritmoa eman dizkio: musika obsesiboa, kamera geldo baina geldiezin, portu giroko irudiak eta protagonistaren baitako misterioa.

19:45
07/04/2026

El hombre de Londres



Hungría · 2007 · 139 min

Zuz/Dir. Ágnes Hranitzky, Béla Tarr · **G.** Georges Simenon, Béla Tarr, László Krasznahorkai · **Arg/Fot.** Fred Kelemen · **Mus/Mús.** Mihály Vig · **Akt/Int.** Miroslav Krobot, Tilda Swinton, Erika Bók

Inv / Gonb. Iñigo Ongay

Emergency Exit

En la estación de autobuses de una ciudad, un grupo heterogéneo de personas suben al autobús número el 8, con un extraño destino:

Circunvalación. El conductor lleva el pelo largo y toda la piel cubierta de tatuajes de huesos, como si pudiéramos ver el esqueleto que hay debajo de él. Su rostro es un misterio. El tempo queda suspendido y el relato se organiza como una sucesión de escenas dialogadas de los catorce viajeros que comparten el espacio.

Más que personajes, se trata de tipos en tránsito: hombres y mujeres detenidos en una suerte de paréntesis vital, que hablan, discuten, recuerdan, se confiesan. Cada conversación expone obsesiones, deseos, frustraciones y miedos. El viaje no avanza y los personajes no pueden abandonar la situación.

Una película oral en la que, sin embargo, la imagen tiene una fuerza muy poderosa.

Hiri bateko autobus geltokian, talde heterogeneo bat igoko da 8 zenbakidun autobusera, helmuga bitxi batekin: inguraketa. Gidariak ile luzea du, eta larruazal osoa hezurren tatuaje estalia, larru azpiko hezurdura ikusi ahalko bagenio legez. Aurpegi misterioa du. Denbora esekia gelditzen da, eta kontakizuna hamalau bidaiarien elkarrizketetan harilkatzen da, eszenaz eszena.

Pertsonaiak baino gehiago pasaeran doazen gizon-emakumeak dira: bizitzako parentesi batean geldirik baleude bezala. Parentesi horretan, berbaka ibiliko dira elkarrekin, eztabaidaka, oroitzapenak berritzen zein aitortzak egiten. Elkarrizketa bakoitzean, jendearen obsesioak, desirak, frustrazioak eta beldurrak azaleratuko dira. Bidaiak ez du aurrera egiten, eta pertsonaiek ezin dute egoera abandonatu.

Ahozko film bat, baina irudiak indar zinez ahaltsua duena.

19:45
14/04/2026

Emergency Exit



Catalunya · 2025 · 96 min

Zuz/Dir. Luis Miñarro · **G.** Luis Miñarro, Àngels Oliva · **Arg/Fot.** Jimmy Gimferrer ·
Mun/Mon. Diana Toucedo · **Mus/Mús.** Anahit Simonian · **Akt/Int.** Marisa Paredes, Francesc
Orella, Emma Suárez, Albert Pla, Arielle Dombasle, Myriam Mezières, Naomi Kawase

+XIII KORTeN! *Locas del ático*, Tamara García Iglesias. EH, 2024, 16' Doc-Esp

Inv / Gonb. Lluís Miñarro, Tamara Garcías Iglesias

Jone, batzuetan

El film narra el paso a la vida adulta de Jone. La joven, de veinte años, vive su primer amor al tiempo que las consecuencias del Parkinson que su padre padece se aceleran inesperadamente.

Durante la Semana Grande de Bilbao, Jone vivirá entre el entusiasmo amoroso que le suscita Olga y el enfrentamiento a la particular manera que tiene Aita de atravesar su enfermedad.

Estos acontecimientos hacen de ese verano el lugar en el que Jone descubre que la niña que es se está transformando en la adulta que va a empezar a ser.

Opera prima que fue presentada en el Festival de Málaga de 2025 y obtuvo una mención especial para su directora, Sara Fantova.

Naturalidad para contar una historia en palabras e imágenes; una historia sencilla detrás de la que se adivina una mirada genuina.

Jone helduarora nola sartzen den kontatzen du filmak. 20 urteko gaztea bera, lehen maitasuna ezagutuko du, eta aldi berean aitari parkinsonaren ondorioak ustekabeen nola bizkortzen zaizkion ikusiko du.

Bilboko Aste Nagusian, Jone irrikaz dago Olgak eragiten dion maitasuna dela medio, eta bitartean aita gaitzari aurre egiteko duen era bitxiaren lekuko izango da.

Udako gertaerotan, Jone konturatuko da bera den neskatoa eraldatzen doala, eta helduaroan sartzen.

Opera prima hau Malagako 2025eko zinemaldian aurkeztu zuten, eta zuzendariaren aipamen berezia jaso zuen, Sara Fantovarena.

Natural kontatuta dago istorioa bai berben aldetik eta bai irudien aldetik, eta atzean ere begirada jatorra igartzen zaio istorio sotilari.

19:45
21/04/2026

Jone, batzuetan



Euskal Herria · 2025 · 90 min

Zuz/Dir. Sara Fantova · **G.** Sara Fantova , Núria Dunjó, Nuria Martín · **Arg/Fot.** Andreu Ortoll · **Mus/Mús.** Pablo Seijo · **Akt/Int.** Olaia Aguayo, Josean Bengoetxea, Ainhoa Artetxe

+XIII KORTeN! Ultramarino, Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti. EH, 2025, 18' Fic

XIV Sesión Aitzol Aramaio / XIV. Aitzol Aramaio Saioa

Inv / Gonb. Sara Fantova, Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti, Anuska Ortega (Fas)

Balearic

En la víspera de San Juan, un día propicio para la magia, nos proponen dos historias que pueden funcionar como un espejo.

De un lado, un grupo de jóvenes que se han colado en una lujosa casa para bañarse en su piscina, son atacados por tres feroces perros que los mantienen prisioneros. Su alegre frivolidad de posados en redes sociales y sexo incipiente se ve interrumpida por el pánico.

De otro lado, un grupo de burgueses festejan la entrada en el verano, beben y se aferran a sueños ya imposibles, imaginando que todavía son jóvenes. La situación se interrumpe y entra el pánico debido a un incendio.

La película avanza como una pesadilla absurda, a veces cruel, a veces divertida, a veces incómoda. Ha sido nominada como mejor película en Locarno (Cineasti del Presente) y en Sitges.

San Joan bezperan, magiarako egun apropos horretan, bi istorio proposatuko dizkigute, ispilu eran kontatuak.

Alde batetik, gazte talde bat, luxuzko etxe batean sartu dena igerilekuan bainatzeko; hiru txakur amorratuk erasoko diete, eta preso edukiko dituzte. Sare sozialetako pose alai eta txolin horren parte direla—eta sexua ezagutzen hasi berritan—, izuak etengo die giroa.

Beste alde batetik, burges talde bat udaldiaren sarrera ospatzen ari da, zurrutean, eta ezinezko ametsak egiten, oraindik gazteak direla irudikatuz. Bat-batean, izuak hartuko ditu sute bat dela medio.

Filma amesgaizto txoro baten moduan doa aurrera, batzuetan doilorra, besteetan barregarria eta besteetan deserosoa.

Filmik onenaren sarirako izendatua egon da Locarnon (Cineasti del Presente) eta Sitgesen.

19:45
28/04/2026

Balearic



Euskal Herria · 2025 · 74 min

Zuz/Dir. Ion de Sosa · **G.** Ion de Sosa, Juan González, Chema García Ibarra, Julián Génisson, Lorena Iglesias · **Arg/Fot.** Cris Neira · **Mus/Mús.** Xenia Rubio · **Akt/Int.** Lara Gallo, Elías Hwidar, Ada Tormo, Paula Gala, Maria Llopis, Christina Rosenvinge

+XIII KORTeN! *Dicen que tu padre*, Aitor Abio. EH, 2025, 14' Fik

Inv / Gonb. Aitor Abio, Ekin Torner

El mal

La sinopsis, escueta, nos pone en antecedentes: 'Una ambiciosa periodista es contactada por un inquietante personaje que le propone obtener el ansiado éxito escribiendo el libro sobre su talento: el mayor asesino de la Historia'.

Como es habitual Juanma Bajo Ulloa no nos dejará indiferentes, su cine atípico e independiente, lejos de fórmulas comerciales, es resistencia y a contracorriente. Como en Baby (2020), retorna a sus inicios de Alas de mariposa (1991) o La madre muerta (1993), y nos envuelve en ese lado oscuro del ser humano, mezclando lo sobrenatural y el melodrama. Una nueva visión del mito de Fausto (vender el alma al diablo) con aire de thriller psicológico llevándonos a una especie de abismo, y pensar en esa fina, y delgada, línea entre el bien y el mal, y con ello, darle 'una vuelta al coco' ¿Es oro lo que reluce?

Sinopsik, laburrak, aurrekariak ematen dizkigu: 'Kazetari handinahi bati pertsonaia kezkarri batek jartzen dio harremanetan, eta honek bere talentuari buruzko liburua idatziz aspalditik itxaroten zuen arrakasta lortzea proposatzen dio: Historiako hiltzaile handiena'.

Ohi bezala, Juanma Bajo Ulloak ez gaitu axolagabe utziko. Bere zinema atipikoa eta independentea, formula komertzialetatik urrun, erresistentzia mota bat da eta kontrako joera du. Baby (2020) filmean bezala, bere sustraletara itzultzen da Alas de mariposa (1991) eta La madre muerta (1993) filmetan, gizateriaren alde ilunean bilduz, naturaz gaindikoa eta melodrama nahastuz. Fausto mitoaren ikuspegi berri batek (arima deabruari saltzea) thriller psikologiko baten kutsuarekin amildegia moduko batera eramaten gaitu, ongiaren eta gaizkiaren arteko lerro fin eta mehe horretan hausnartzera bultzatuz, eta horrela, benetan pentsatzera. Urrea al da distira egiten duen guztia?

19:45
05/05/2026

El mal



Euskal Herria · 2025 · 120 min

Zuz/Dir. Juanma Bajo Ullóa · **G.** Juanma Bajo Ullóa · **Mus/Mús.** Koldo Uriarte
Arg/Fot. Diego Trenas · **Akt/Int.** Belén Fabra, Natalia Tena, Tony Dalton

Sesión Fas & FANT 32 Saioa

Inv / Gonb. Lorenzo Damián García

Banda sonora para un golpe de estado

Soundtrack to a Coup d'Etat

En los años 60 tiene lugar el proceso de descolonización de los países de África que, en plena Guerra Fría, se incorporan a la ONU. Una gran convulsión para el orden de poder internacional que, entre otras cosas llevó al asesinato de Patrice Lumumba, presidente electo de la República Democrática del Congo. Además, la CIA utiliza a los músicos negros estadounidenses como cortina de humo para ocultar sus movimientos y, al tiempo, generar simpatías en la población africana. El trabajo del director recoge contenidos de otros documentales anteriores y construye un emocionante ensayo cinematográfico de 150 minutos. La información sobre los hechos, se nos presenta imbricada con la música de los grandes del jazz, algunos de ellos activistas del movimiento de derechos civiles. Nominada a mejor documental en los premios Oscar de 2024, obtuvo el Premio Especial del Jurado de Sundance.

60ko urteetan, Afrikako herrialdeen deskolonizazio prozesua gertatu zen, eta, Gerra Hotzaren erdian, herrialde horiek NBEra batu ziren. Horrek inarrosi egin zuen nazioarteko boterearen ordena, eta, besteak beste, Patrice Lumumbaren hilketa ekarri zuen, Kongoko Errepublika Demokratikoko presidente hautatuarena. Horretaz gainera, CIAk AEBetako musikari beltzak erabili zituen estalki gisa, bere mugimenduak ezkutatzeko eta, aldi berean, afrikarengan sinpatiak pizteko. Zuzendariak aurreko beste dokumental batzuetako edukiak jaso ditu, eta entsegu zinematografiko zirraragarri bat eratu du, 150 minutu irauten duena. Gertaeren gaineko informazioa jazz musikari handiekin uztartuta ageri zaigu, haietako batzuk eskubide zibilen aldeko mugimenduetan aktibista izandakoak. 2024ko Oscar sarietan, dokumentalik onenerako izendatua egon zen, eta Epaimahaiaren Sari Berezia jaso zuen Sundancen.

19:45
12/05/2026

Banda sonora para un golpe de estado



Bélgica · 2024 · 150 min

Zuz/Dir. Johan Grimonprez · **G.** Johan Grimonprez, Dan Milius · **Mun/Mon.** Rik Chaubet
Arg/Fot. Jonathan Wannyn · **Akt/Int.** Patrice Lumumba, Dag Hammarskjöld, Louis Armstrong

Inv / Gonb. Marije Murguia

As liñas descontinuas

Bea es una mujer de 50 años que se está separando de su marido. El día en el que tiene que abandonar el hogar en el que ha vivido los últimos veinte años llega a su casa y se encuentra todo patas arriba y a uno de los ladrones dormido en su cama. Denís es un chico trans de 28 años que, a pesar de haber estudiado una carrera, lucha con la precariedad laboral y la falta de oportunidades. Después de pasar tres días juntos, cada uno deberá continuar su camino.

Este segundo largometraje de su directora propone una historia humana, entre dos personajes entre los que no parece existir conexión alguna.

Puesta en escena sencilla, cálida en los interiores y con diálogos bien elaborados. La narrativa parte de los personajes por separado y va entretejiendo sentimientos que los unen.

Bea 50 urteko emakume bat da, senarrarengandik banantzen ari dena. Hogei urtean bizi izan den etxea utzi behar duen egunean, etxera iritsi, eta dena hankaz gora topatuko du, eta lapurretako bat bere ohean lo. Denis 28 urteko trans mutila da, karrera bat egin badu ere lan prekarietatearen aurka borrokatzen dena eta aukerak falta dituena. Elkarrekin hiru egun pasatu ondoan, bakoitzak bere bidetik joan beharko du.

Zuzendariaren bigarren film luzea den honetan, istorio gizatiar bat proposatzen da: elkarrekin inolako konexiorik ez duten bi pertsonaien artekoa.

Eszenaratze sotila, barrualdeetan beroa eta ondo landutako elkarrizketak. Pertsonaiak bakoitza bere aldetik aurkeztuko dira kontakizunean, eta elkar lotzen duten sentimenduak ehuntzen joango dira.

19:45
19/05/2026

As liñas descontinuas



Galicia · 2025 · 90 min

Zuz/Dir. Anxos Fazáns · **G.** Anxos Fazáns, Ian De La Rosa · **Mus/Mús.** Xavier Bértolo
Arg/Fot. Sandra Roca · **Akt/Int.** Mara Sánchez, Adam Prieto, Ana Fornéas

+XIII KORTeN! *Hara iristeko bidea*, Nora Alberdi O. EH, 2025, 7', Doc

Inv / Gonb. Anxos Fazáns, Nora Alberdi

La mujer murciélago

Ciencia-ficción años 60. Una heroína, la Mujer Murciélago, valiente, audaz, justiciera y seductora, se ve envuelta en un misterio de personas desaparecidas. Se tiene que enfrentar un científico loco que está destrozando luchadores y usa su líquido espinal para crear una nueva raza de luchadores subacuáticos. La película surge, sin duda, con la intención de aprovechar el tirón que tienen en el momento otras del mismo género.

Lo que tiene de especial es que se desarrolla en la ciudad de Acapulco (también de moda en ese momento) y que la protagonista es una mujer millonaria que ha entrenado su cuerpo para dominar distintas modalidades deportivas; eso en un momento en que la sociedad mexicana era muy machista y no permitía la práctica de la lucha femenina.

En la versión restaurada se puede disfrutar de escenas submarinas espectaculares y una fotografía en color magnífica.

60ko hamarkadako zientzia fikzioa. Heroi bat, saguzar emakumea—ausarta, ernea, justiziazalea eta limurtzailea—, kasu batean gertatuko da: desagerturik dauden pertsonen misterio batean. Zientzialari ero bati aurre egin beharrean da; izan ere, borrokalariak txikitzen ari da, eta haien bizkarrezurreko likidoa darabil urpeko borrokalari arraza berri bat sortzeko. Zalantzari gabe, filmaren asmoa da genero bereko beste film batzuek duten tira aprobetxatzea.

Honen berezitasuna da Acapulcoko hirian gertatzen dela (hori ere modan zegoena une hartan) eta protagonista emakume milioidun bat dela, bere gorputza entrenatu duena askotariko kirol modalitateetan trebatzeko; noiz eta mexikar gizartea oso matxista zenean, ez baitzuen borroka femeninoarik onartzen.

Berregindako bertsioan, urpeko eszena ikusgarriez goza gaitezke, argazki koloretsu zoragarrietan.

19:45
26/05/2026

La mujer murciélago



México · 1968 · 80 min

Zuz/Dir. René Cardona · **G.** Alfredo Salazar, Bill Finger, Bob Kane · **Arg/Fot.** Agustín Jiménez · **Mun/Mon.** Jorge Bustos · **Akt/Int.** Maura Monti, Roberto Cañedo, Héctor Godoy

+XIII KORTeN! *Esa maravillosa niebla II*, Aitor Elorriaga T. EH, 2025, 23' Fic

Sesión en colaboración con Caostica / Caostica-rekin elkarlanean saioa

Inv. / Gonb. Conex. online con Viviana García-Besné y Edna Campos (Méx.), Aitor Elorriaga Torre

Popel (Cenizas)

Las investigaciones sobre dos personas deportadas (Angel Lekuona y Enric Moner) cuyas vidas terminaron en los campos de concentración nazis se cruzan por zar y llegan a desvelar la increíble historia de una familia que arriesgó sus vidas para salvar las cenizas de 2000 víctimas en el crematorio de Praga. Todos cumplieron penas de cárcel.

Ochenta años después, el descubrimiento de estos hechos conecta el pasado con el presente y saca a la luz un capítulo omitido de nuestra historia, revelando que los restos de aquellos deportados reposan hoy en un mausoleo de Praga.

Este largometraje documental es un tributo a los héroes anónimos, y una llamada a preservar la memoria de quienes nunca debieron ser olvidados. A su servicio, una narrativa envolvente que combina distintos elementos (testimonios, documentos y secuencias animadas) con el dinamismo de un thriller.

Kontzentrazio esparru nazietan hildako bi deportaturen (Angel Lekuonaren eta Enric Monerren) inguruko ikerketak, kasualitatez, gurutzatu egiten dira, eta azkenean agerian uzten dute familia baten istorio sinestezina: Pragako errausketa labeen, arriskuan jarri zuten beren bizia, 2.000 biktimaren errautsak salbatzeko. Denek bete zituzten kartzela zigorrak. Laurogei urte geroago, gertaera haiek iragana eta oraina konektatu dituzte, eta argitara atera dituzte alboratuta eduki dugun historiako atal bat: deportatu haien gorpuzkiak Pragako mausoleo batean dautzala gaur egun.

Film luze dokumental hau bi heroi anonimoen omenez eginda dago, eta dei egiten du inoiz ere ahaztu behar ez zirenen oroimena atxikitza. Horrela sortu da narratiba eraginkor eta harrigarri hau, hainbat elementu uztartzen dituen (testigantzak, dokumentuak eta animazio sekuentziak) thrillerraren dinamismoarekin.

19:45
02/06/2026

Popel / Cenizas



EH / República Checa · 2025 · 87 min

Zuz/Dir. Oier Plaza Gartzia · **G.** Garazi Velasco del Pino · **Arg/Fot.** Lander Andonegi · **Mus/Mús.** Aitor Etxebarria · **Akt/Int.** Antonio Garrido Clemente, Unai Eguia, Antón Gandarias

+XIII KORTeN! *Natura fugit*, Jesus Mari Lazkano. EH, 2025, 22' Ani

Inv. / Gonb. Oier Plaza G., Unai Eguia, Jesusmari Lazkano. Modera: Lorenzo D. G.

La misteriosa mirada del flamenco

La historia de un pueblo en mitad de cualquier parte. Un grupo de personas trans en equilibrio inestable con una comunidad de mineros.

Aparece una misteriosa enfermedad y se dice que se trasmite con una sola mirada, cuando un hombre se enamora de otro; surge el conflicto y el odio. La historia es un western (aunque no haya ganaderos y granjeros) que se nos muestra a través de los ojos de Lidia, una niña de 11 años.

La fotografía saturada del desierto se mezcla con el tenebrismo opaco de unos interiores desolados. Imágenes reconocibles pero con un halo de enigma; un ambiente medio mágico, cruel y cálido a la vez.

Es la opera prima de un director chileno premiada en Cannes (Una Cierta Mirada) como Mejor Película y en San Sebastián con el Premio a la Juventud.

Ezerezaren erdian den herri baten istorioa. Trans talde bat, meatzari komunitate batekiko oreka desegonkorrean. Gaitz misteriotsu bat agertuko da, begirada hutsarekin transmititzen dena, gizon bat beste batekin maitemintzen denean. Gatazka eta gorrotoa sortuko dira. Western bat da (nahiz eta ez dagoen ez abeltzainik eta ez baserritarrik), Lidiaren begietatik kontatua; 11 urteko neskatoa bera.

Desertuko argazki saturatua konbinatuta dator barrualde desolatuen tenebrismo ilunarekin. Irudi ezagunak baina enigma kutsukoak; giro erdi magikoa, ankerra eta beroa aldi berean.

Txiletar zuzendari baten opera prima. Filmik onenaren saria Cannesen (Una Cierta Mirada), eta Gazteriaren Saria Donostian.

19:45
09/06/2026

La misteriosa mirada del flamenco



Chile / EH · 2025 · 110 min

Zuz/Dir. Diego Céspedes · **G.** Diego Céspedes · **Arg/Fot.** Angello Faccini · **Mus/Mús.** Florencia Di Concilio · **Akt/Int.** Tamara Cortés, Matías Catalán, Paula Dinamarca, Claudia Cabezas, Luis Dubó

Inv / Gonb. Mayra Morán

Estrany riu

Una familia que viaja en bicicleta por los alrededores del Danubio, incluidos algunos lugares que el padre conoció en su juventud, Un hijo de dieciséis años (Didac) tiene un encuentro inesperado que cambia el rumbo del viaje. Un chico misterioso aparece entre las aguas del río. Su enigmática presencia no solo despierta algo nuevo en Dídac, sino que empieza a alterar la relación con su familia.

En la secuencia de arranque la cámara sigue a la bicicleta, el paso de las arboledas, el movimiento de los cuerpos, después se presentan escenas cotidianas de una familia en vacaciones y desembocan en imágenes hermosas de la percepción del lugar como único, debido a las emociones y experiencias adolescentes.

Una estupenda ópera prima de un cineasta de tan solo 27 años que fue nominada a Mejor Película en el Festival de Venecia (Orizzonti).

Danubio inguruan bizikletan bidaiatzen doan familia bat. Aitak gaztaroan ezaguturiko toki batzuk ikusten ari dira. 16 urteko semeak (Didac) ustekabeko topaketa bat izango du, eta aldatu egingo da bidaiaren norabidea. Mutiko misteriotu bat azalduko da ibaiko uretatik. Haren presentzia misteriotuak zeozar berria piztuko du Didac-engan, eta horrek familiarekin duen harremana aztoratuko du.

Abiaturuko sekuentzian, kamerak bizikletari jarraitzen dio, arboladiak pasatzen doaz, gorputzen mugimendua dago; ondoren, oporretan den familia baten eguneroko gorabeherak erakusten dizkigute, eta irudi ederrekin amaitzen da, nerabeen emozio eta esperientzien bidez lekua bakarra dela sentiarazten duen ikuspegi batekin.

27 urte besterik ez duen zinemagile baten opera prima aparta, Veneziako Zinemaldian filmik onenaren sarirako izendatua egon zena (Orizzonti).

19:45
16/06/2026

Estrany riu



España · 2025 · 103 min

Zuz/Dir. Jaume Claret Muxart · **G.** Jaume Claret Muxart, Meritxell Colell · **Arg/Fot.** Pablo Paloma · **Mus/Mús.** Nika Son · **Akt/Int.** Nausicaa Bonnín, Roc Colell Moncunill, Sergi Ferrer Pedrazo

Sesión en colaboración con Zinegoak / Zinegoak-ekin elkarlanean saioa

Inv. / Gonb. Jaume Claret, Alaitz Arenzana

Häxan. La brujería a través de los tiempos

Una mezcla de documental y ficción dramática, la película repasa el ocultismo, la magia negra y la brujería durante varios siglos, para terminar relacionando el tratamiento de brujos y brujas en la Edad Media con algunas situaciones modernas de los años veinte. Película elogiada en su tiempo, de gran presupuesto y parcialmente basada en un manual alemán para inquisidores del siglo XV. Fue prohibida en algunos países por la crudeza de sus escenas. Incluye cuatro partes temáticas: una disertación académica sobre demonios y brujas acompañado de fotografías de estatuas y pinturas; viñetas que muestran teatralmente la superstición y las creencias medievales sobre la brujería; una larga narración de historias terroríficas dividida en varias partes y ambientada en la Edad Media; y una demostración de que los acusados de brujería de entonces serían considerados enfermos mentales en la Europa de 1922.

Dokumentala eta fikzio dramatikoak nahasten dituen filma. Zenbait mendetako okultismoaren, magia beltzaren eta sorginkeriaren errebasoa egiten du, eta amaieran, Erdi Aroan sorginei ematen zitzaien tratua lotuko du hogeiko urteetako egoera moderno batzuekin. Bere garaian goraipatua izan zen, eta aurrekontu handia izan zuen. Hein batean, XV. mendeko inkisidoreentzako eskuliburu aleman batean dago oinarritua. Herrialde batzuetan debekatu egin zuten, agertzen dituen eszena ankerrak direla medio. Lau atal tematiko ditu: deabruen eta sorginen gaineko disertazio akademiko bat, figuren eta margoen argazkiekin lagundua; sorginkeriaren gainean Erdi Aroan zeuden superstizio eta sineskeriak modu teatrolean erakusten dituzten binetak; istorio beldurgarrien kontakizun luze bat, Erdi Aroan girotutako zenbait ataletan zatitua; eta denbora hartan sorginkeria leporatzen zitzaienak 1922ko Europan gaixo mentaltzat jotzen zituztelako erakusgarri bat.

19:45
23/06/2026

Haxän. La brujería a través de los tiempos



Suecia / Dinamarca · 1922 · 105 min

Zuz/Dir. Benjamin Christensen · **G.** Benjamin Christensen · **Arg/Fot.** Johan Ankerstjerne
Mon/Mun. Edla Hansen · **Akt/Int.** Benjamin Christensen, Elisabeth Christensen, Maren
Pedersen

Cine mudo con música en directo / Zinema mutua zuzeneko musikarekin

Inv / Gonb: Josetxo Fedz. De Ortega (piano), Fernando Bayón

Patrocinadores y colaboradores **Babesle eta laguntzailea**



Oficina: Centro Cívico de Olabeaga, San Nicolás de Olabeaga 33, 2º - Tel.: 618 318 431

info@cineclubfas.com / www.cineclubfas.com / Bluesky: @cineclubfas.bsky.social /

Facebook: Cineclub Fas / Instagram: @faszinekluba

Proyecciones: Salón Indautxu (Plaza Indautxu)